

Larrialdietarako Eskumuturra



Saturnino de la Peña institutua, Sestao
Amaia Iglesias, Unai Martínez, Ander Rodriguez eta
Sara Ruiz

GURE IDEIA

Gure ideia hasieratik gizartean dauden zenbait arazo konpontzeko helburua izan du. Horretarako gure taldeak eskumutur bat sortu du, bertan botoi bat daukana. Botoi horren bitartez eskumuturra duten pertsonak lehenago programatutako telefono batera dei ahal izango dute. Aukeratutako zenbakia pertsonak nahi duena izan daiteke.



Gure eskumuturraren bitartez hura erosten duten pertsonak seguruago sentitzea lortu nahi dugu. Izan ere, laguntza lortzeko soilik botoi bat sakatu behar izango dute.

Gure proiektuaren xedapen guztiak azaltzeko ondoren irakurriko duzuen dokumentua prestatu dugu. Bertan, Canvas ereduari jarraituz, gure proiektuari buruzko ezaugarri guztiak azaltzen ditugu.